



Jabier Kalzakorta euskaltzain eta irakaslearen azken lana, Labayru Fundazioak bultzatuta

## Euskal baladak aztergai

**B**i liburuki berde itzel mardulak. Labayru Fundazioak bultzaturiko *Laratz-Ahozko Literatura Bilduma* ren barruan 11 eta 12 zenbakidunak. Eta guztira, ia 1.500 orri euskal baladen inguruan idatziak. Liburuon titulua: *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa*. Tamainako lana egiteko, tamaina bereko idazlea eta aditua behar da. Nor? Irakasle, euskaltzain, eta ahozko literaturan aditua den Jabier Kalzakorta markinarra.

Euskal balada eta koplaren inguruan gehien dakiena egile hori badela esaten badugu, ez gara inolako lelokeriarik esaten ari. Duela urte batzuk, euskaraz perla zoragarriren biltzaile amorratua den Jabier Kalzakortak *Dantza-kopla* zaharrak lan itzela moldatu eta argitaratu zuen. Bertan koplak edo asko bildu eta aztertu zituen. Egindako lanaz galdetzean haxe zioen Kalzakortak: "Lan bat argitaratzen duzunean, daukazu gutzia edo gehiari argitaratu arren, deskizian eta ikerketan jarraitzeko gogoia ez duzu alde batera uzten. Lan bat argitaratzeak ez du esan nahi mendiaren gailurrera iritsi zarenik. Ibili duzun bideak aurrera eramaten zaitu nahitaez. Dantza-kopla zaharrak argitaratu nuenetik koplak sailberriak ez ezik ikerketak bide berriak ere badituzte. Horiekin guztiekin, argitaratu ditudan materialekin eta buruan ditudan ideiekin liburu bat osatzeko lain badut". Eta gero haxe gaineratu zuen: "Euskarazko ahozko generoak maite ditut. Dan-



tza-koplak bezala baladak edo esaera zaharrak".

Bai, ahozko literatura maite du ezinbestez, eta batzuetan galtzar izan litekeenarekin penaturik agertzen da egilea. "Ahozko literaturak, gaur egun, neurri handi batean desagerturik dagoenez gero, balio handia hartzen du. Zenbait kasutan ez da desagertu, baina guztiz eraldatu. Uste dut, kasurik onenean ere, ezer gutxi dakigula ahozko literaturaz edo ahozko literaturaren hainbat genero edo alderdiez".

Oraingoan baladak hartu ditu aztergai, eta mila gordelekuren barrenean ibili ostean, altxorrrak topatu ditu, eta gero bixioak aztertu eta liburu formatuan argitara eman ditu: *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa I* eta *II*.

### Zer dira baladak

Baina zer dira baladak? Berak dioen moduan poema narratiboak dira, bertso formatuarekin gertaera harrigarriak kontatzen dituztenak. Perla handiak ditugu gurean, "ale preziatuak", baina badirudi ez direla asko kausituriko kopuruari begiratzen badiegu, halarik ere, bildu diren aleak kontuan izanik, "Euskal Herriko baladen tradizioa aberatsa baino aberatsagoa izan be-



har zuela" pentsatzen da. Bai, kantu narritiboak dira, modu arkaikoan gureganaino heldu direnak, eta askotan gai bortitza kontatzen dituztenak. Askotan, horrexegatik, zatika zabaldu ziren. Autoreak orain arte argitaraturik gabeko aldaera asko eta asko bildu eta inprimatu ditu; ezezaguna zen hura, erdi galduta zegoen hura, datozen interesdunentzat finkatzeko eta erakusteko.

Arlo ezberdinetan edota gai ezberdinetan banatu behar dira baladak: balada historikoak direnak, amodiozkoak eta erlijioari dedikatutakoak. Ikerketa abiatzeko garaian hainbat oinarri ezarri dira eta ondoriozta daitekeenaren arabera testuek

izan dute protagonismoa. Eta baladak testu kantatuak diren arren, obra honetan ez da doinurik eman, "gure konpetentziatik urrun baitago" zeregin hori. Hainbat kasutan, baladarekin batera musika badator, ez da horren gaineko azterketarik egin, diogun bezala, euskarazko testua baita oinarria. Eta euskara eredu? Bada, bizkaierazko, goi-nafarrerazko, lapurterazko, edota zubererazko baladak egon badaude, eta hortik ere badator aberastasuna, izan ere, balada horien lurraldea "gaur egun euskaraz mintzatzen den eremukoa ez ezik, euskara galdu den eremukoa ere bada".

Testuetara joz gero, belarritik kanta moduan edota hainbat liburuan irakurririko lerroak ezagunak egingo zaizkigu. Eta lan horretan horiekin irakurtzeak batera, bertan egin den azterketa zehatza eta zorrotza irakurri ahalko dugu. Tartean ere badaude, adibidez, *Alostorrea balada*, *Aiharratze jauregian*, *Berele-rettek*, *Egun bereko alharguntsa*,

*Urtsua*, *Urzo luma gris gaxua famatua*, *Ana Juanixe*, *Kanzuriano*, *Leisibaxo*, *Adios orain dama gaztia*, *Egunazala*, eta abar luzea.

Aipaturiko bi liburukietan, 2015eko Santo Tomas egunean, Deustuko Unibertsitatean defendaturiko tesiaren eduki nagusia batu da, beti ere euskal baladen testuak finkatzeko xedez, "guk helburu bikoitza izan dugu batez ere tesi honetan, ezagutzen diren baladen benetako edizioa bat eskaintzea eta balada eredu berriak argitara ematea". Egindakoak lan eskerga eskatu dio ikerztzaileari, izan ere, Euskal Herriatik kanpo ere ibili behar izan du hainbat gairen bila, horiekin behar bezala aztertzeko eta sakontzeko esperantzaz.

Antonio Zavalak utzitako arrastoari segika aritu da Kalzakorta baladen corpusa osatzerakoan. Hemendik aurrera honako lan mardula erreferentziatzeko bilakutako da arlo horretan berriz murgildu nahi duenarentzat.

Bere hitzek argi uzten dute egindako lanarekiko maitasuna: "Baladek badute aparteko giro bat, aparteko indar poetiko bat, eta delako zer hori hitzez adieraztea zaila baino zailagoa da. Balada bat irakurtzen edo entzuten duena berehala konturatzen da irakurri edo entzun duen kantua badaukala definitzen, adierazten zail den zer baita."

Egile eta sortzaile porrokatua dugu Jabier Kalzakorta, liburuaren artean ikertzaile fina eta langile, tai gabe pisuzko obra eman korra burutzen ari dena. Bejondeizula, Jabier!

Juanra Madariaga

**Euskarazko ahozko generoak maite ditu Kalzakortak, "dantza-koplak bezala baladak edo esaera zaharrak"**